

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2017ko IRAILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko irailaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta

EZ DA BERTARATZEN: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.
...//...


Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko uztailaren 27an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 27 de julio de 2017.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo poligono 1, 307 partzelan txabola bat eraikitzeke obra baimena eskaera M.A.M./Solicitud de licencia de obras para la construcción de una borda para aperos en la parcela 307 del polígono 1 de Larraul, M.A.M.**
- 4. 2017 ekitaldirako Larraulgo Kirol Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren onspena, hala bada./Aprobación de la solicitud de ayuda económica realizada por Larraulgo Kirol Elkarteak, correspondiente al ejercicio 2017.**
- 5. I.Z. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada/ Estudio de la solicitud realizada por I.Z.**
- 6. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 7. Beste batzuk/Otros.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2017 urteko uztailaren 27ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

15/2017 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 10ekoa, hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA **LARRAULGO POLIGONO 1, 307 PARTZELAN TXABOLA BAT ERAIKITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.A.M.**

Ikusirik M.A. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo 1 poligonoko 307 lursailean txabola bat eraikitzeke obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2017ko irailaren 4ean eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO 1 POLIGONOKO 307 LURSAILEAN TXABOLA BAT EGITEKO ASMOARI TXOSTEN TEKNIKOA

M.A.M. jaunak, Larraulgo 1 poligonoko 307 lursailean nekazal tresnak gordetzeko txabola bat egiteko asmoa azaltzen du. Honetarako lursaila eta bordaren kokapena, bordako oina eta altxaerak azaltzen dituen 2 plano eta aurrekontu bat aurkezten ditu obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa aztertutik eta eskaerari erantzuten, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Eskarian, 20m² ko azalera eraikigarria izango duen txabola bat egin nahi dela esaten da. Txabola honek, ekialdean azalera berdineko portxe ireki bat izango luke. Txabola egiteko aurkeztu den aurrekontua 14.832,80€-koa da. Katastroaren arabera, 307 lursailak 19.513 m²-ko azalera bat du.

1 poligonoko 307 lursaila Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, D.20 produkzio zonaldean.

Larraulgo Arau Subsidiarioen lur hiritargarriezinaren 72º artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen txabolek 20m²-ko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

azalera eraikigarria izango dute, beti ere txabola honi loturiko lursailak 2.500m² baino gehiago baditu.

Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados

“Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500 m2.

c) Condiciones de edificación: **se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.**

Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.

d) Superficie máxima construida: 20 m2 para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.

e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.”

Eraikinen kanpo itxurari buruzko **47º eta 48º artikulua**k berriz honela diote:

Artículo 47.- Condiciones de edificación

-. Las edificaciones se ajustarán en cuanto a su volumetría y configuración general a las tipologías edificatorias de las construcciones existentes en Larraul. Responderán a una volumetría simple, **con la cubierta inclinada a 2, 3 o 4 aguas y con pendientes no superiores al 35%.**


Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

“- Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

- **Como material de fachada se utilizará el revoco pintado** y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

- Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

- las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Honen arabera, txabolaren teilatua teilazkoa izan beharko litzateke eta paretak harizkoak edo luzitu eta margotuak izango lirateke.

69^a artikuluaaren arabera, eraikina ondoko partzelatik 8m-tara egon beharko da gutxienez, beste landa lurreko eraikinak ez direnen arteko gutxieneko distantzia 50m-koa izanik.

Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait. 72^a artikulua esaten duen bezala, obra baimena "prekarioan" emango da.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo 1 poligonoko 307 lursailean txabola bat eraikitzeke obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu eta konkretuki ondorengoak:

Honen arabera, txabolaren teilatua teilazkoa izan beharko litzateke eta paretak harizkoak edo luzitu eta margotuak izango lirateke.

69^a artikuluaaren arabera, eraikina ondoko partzelatik 8m-tara egon beharko da gutxienez, beste landa lurreko eraikinak ez direnen arteko gutxieneko distantzia 50m-koa izanik.


Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait. 72^a artikulua esaten duen bezala, obra baimena "prekarioan" emango da.

***Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.**

***Lanak amaitzean, eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."**

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

2017 EKITALDIRAKO LARRAULGO KIROL ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Kirol elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Bote luzeko txapelketa eta erakustaldiak egiten dituztela eta euren jarduerarako behar duten kirol materiala eta joan etorriak finantzatzen laguntzeko Larraulgo Udalarari 300 eurotako diru-laguntza egiten diote..

Ikusirik 2017 urterako Udal aurrekontuetako 422.929.00.01 partidan, Larraulgo Kirol Elkartearentzat 200,00euro aurreikusten direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Kirol Elkarteak eginiko eskaera onestea, hau da, 2017 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez, 200 euroko diru-laguntza ematea, bote luzeko txapelketa eta erakustaldien kostuen finantzaketan parte hartuz.

BIGARRENA: Larraulgo Kirol Elkarteari jakinarazi, urte amaieran kontuen kitapena eta memoria bat aurkeztu beharko dutela.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo Kirol Elkarteari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

I.Z. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik I.Z. andreak eginiko eskaera, non 2017/2018 ikasturtean, Ingeleseko ludotekarekin jarraitu nahi duela eta hau posible ahal izateko, Udal lokal baten eskaera egiten duen. Aurreko ikasturtean liburutegia erabili zuelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.Z. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, udal liburutegia erabiltzeko baimena ematea, ingeleseko klaseak emateko. Ikasturtea amaitutakoan, utzitako giltzak, Udal bulegoan bueltatu beharko duelarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z. andreak ematea.

SEIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK


Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	53,65
IBERDROLA	99,62
IBERDROLA	155,19
IBERDROLA	185,89
IBERDROLA	231,09
IBERDROLA	21,99
IBERDROLA	157,18
IBERDROLA	74,39
IBERDROLA	131,22
IBERDROLA	179,41
IBERDROLA	28,70
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,69
MOVISTAR	68,00
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	17,99
ZU ETA BOK	101,12
EBA ERKIZIA	575,05
KIROLZER	63,85
BARBE	187,20
CORREOS	0,32
IMAZ COLOR	83,16
BERTSOZALE ELKARTEA	390,80
KATILLU TXULO	127,84
NATURGAS	8,20
TOLOMENDI	152,50
IZFE	1.950,28
KIROLZER	66,00
CORREOS	0,96
BERRI	110,94
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.472,09
JOSE ANTONIO ALTUNA	264,71

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.157,91** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

**7.1. J.A. ANDREAK, LARRAULGO GURASO ELKARTEAREN IZENEAN
EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Udalbatza honek, aho batez, puntu hau, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ikusirik J.A. andreak, Larraulgo guraso elkartearen izenean eginiko eskaera, non
“urte guztian zehar guraso elkarteko bilerak egiteko eskolako giltza eskatzen duen”.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A. andreak, Larraulgo Guraso elkartearen izenean eginiko eskaera ukatu,
eskaera orokorra delako.

BIGARRENA: Larraulgo guraso elkarteari jakinarazi, bilerak dituztenetan, Larraulgo
Udaletxean dagokion eskaera zehatza egin beharko duela giltza jaso ahal izateko.

ZORTZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera
amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan
jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA